



## **AIARAKO UDALAK 2022ko OTSAILAREN 17an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

### **PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

### **ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

jauna  
José Antonio Bartolomé Pesquera

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendíbil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita biko otsailaren hamazazpian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

### **EZ DIRA BERTARATU**

Susana Martín Benavides andrea

### **IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko urtarrilaren 20an eginiko Ohiko Osoko Bilkuraren Akta.**

Ez da aktaren gaineko iruzkin gehiagorik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez akta onetsi dute.

### **2.-Udaleko gizarte-zerbitzuen prestazioa behin-behinean mantentzeko Erabakia luzatzea.**

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko otsailaren 8ko aldeko Irizpena.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak hitza hartu du galdetzeko ea testuak gaztelaniaz soilik bidaltzen dituzten.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio ez duela gogorutzen. Testua euskaraz ere baldin badago, helaraziko zaio.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak hitza hartu du esateko bere taldea abstenituko dela. 2016tik luzapenez luzapen ibili dira eta ez daude prozesu horrekin



konforme. Gaineratzen du ez direla zerbitzuak Gasteizen zentralizatzen ari. Uste dute zerbitzuak Udalekoak direla eta Udalak kudeatu beharko lituzkeela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hitza hartu du azaltzeko luzapen hori izango duten zerbitzuetako bat ere ez dela Aiaran ematen. Aiaran eman diren gainerako zerbitzuak betidanik eman izan dira.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta honako hau izan da horren emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** 7 (6 EAJ-PNV + 1 AB)

**ABSTENTZIOAK:** 3 EH Bildu

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 42. artikulua araber, honako funtzio hauek Udalaren eskumenak dira:

(...)

3) 29. artikuluan zehazturik datozen oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik; lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik.

**IKUSI DA.-** Halaber, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 2. artikuluan, ezartzen dela gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa; 2016ko abenduaren 26an perfektionatu zen.

**AINTZAT HARTU DA.-** Arau-exijentzia horien berehalako aplikagarritasuna, eta beraz, honako hau adierazten da:

- a) Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen (GZL) 42. artikulua, baita Legean jasotako beste arau-erreferentzia batzuek ere, udal-eskumena zerbitzuaren prestazio eraginkorretik banatzen dute.
- b) GZLren helburu argi eta erabakigarria da udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuen prestazioa talde moduan egin ahal izatea (GLZren 28.2 eta 29.4 artikulua)
- c) Helburu hori argia da Arabako Lurralde Historikoan; udalerrri batek ere, Vitoria-Gasteizek izan ezik, ez du 20.000 biztanleko atalasea gainditzen; Aiarako udalerrriak ere ez du gainditzen, biztanleria ez da 3.000 biztanle baino gehiagokoa.
- d) Halaber, partekatutako prestazio hori GZLaren 36.5 artikuluan ohartarazten da, esaten duenean Gizarte Zerbitzuen Mapak bere gain hartuko dituela foru- eta toki-administrazioek erabakitzen dituzten muga geografikoak. Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa bere garaian onetsi zen eta oraindik gizarte zerbitzuak emateko modua zein izango den zehaztu behar da, udal mugartea baino lurralde-esparru handiagoan eman behar denean.



- e) Udal honek, eskala mailako arrazoi objektiboengatik eta Lurralde Historikoko Mapara egokitzeko arrazoiengatik, ezin ditu gizarte zerbitzu horiek bere kabuz eman.
- f) Ez da oraindik partekatutako kudeaketa formularik erabaki, elkartuta edo beste bide instituzional bat erabiliz, gizarte zerbitzu horiek emateko.
- g) Gaur-gaurkoz, Arabako Foru Aldundia bere kabuz eta erabakien bidez udal-zerbitzuen zati bat betetzen ari da, nahiz eta ezarritako aurreikuspenen arabera udal-eskumena izan zerbitzu horiek ematea.
- h) GLZak berariaz aitortzen du administrazioen arteko kooperazio eta koordinazioaren betebeharra; diseinatutakoa bezalako gizarte-zerbitzuen sistema integratuari berez dagokiona.
- i) Halaber, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31.2a) artikulua ezartzen du aldundien helburuetako bat dela “Probintziako lurralde osoan udalerraren eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzea”.

**AINTZAT HARTU DA.-** Arabako Foru Aldundiko abenduaren 28ko 845/2021 Erabakia. Horren bitartez onesten da Lurralde Historikoko udaletara eramatea abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia **2022ko ekainaren 30era arte luzatzeko proposamena**, zeinaren bidez onetsi baitzen gizarte-zerbitzuak behin-behinean mantentzea, Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek orain arte kudeatu duten baldintza berberetan eta bere garaian adostutako baldintza berberetan.

**AINTZAT HARTU DA.-** Udal-eskumeneko zerbitzuak emateko xedez beharrezkotzat jotzen da lankidetzaren esparruan lanean jarraitzea, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorroari buruzko Dekretuan eta Plan Estrategikoan jasotzen den moduan. Hori guztia ikuspegi tekniko, juridiko eta nahikotasun finantzarioko batetik, zeina bat datorren egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin.

Udalerri honetako herritarren eskubide subjektiboa bermatu behar da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioetara eta zerbitzuetara sarbidea izateko; eta ondorioz, guztiz bermatuta gelditu behar da Aldundiak eta udalerrri honek emandako eta kudeatutako baldintzetan.

Eta, arau-datutik abiatuta, Erabaki horren bigarren puntuari ezartzen da, Erabakia eraginkorra izan dadin, beharrezkoa dela udalerrri bakoitzak ontsat ematea eta dagokion ziurtagiriaren jakinarazpena egitea Arabako Foru Aldundiari, eskumeneko udal-organoa ados dagoela adierazteko.

Aiarako Udalak aho batez **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalak adieraztea ados dagoela Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 28ko 845/2021 Erabakiarekin, zeinetan onetsi egiten den Lurralde Historikoko Udalerriei **2022ko ekainaren 30era arte luzatzea** aurreko 904/2016 Erabakia, abenduaren 26koa, zeinaren bidez onetsi baitzen gizarte-zerbitzuak behin-behinean mantentzea, Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek orain arte kudeatu duten baldintza berberetan eta bere garaian adostutako baldintza berberetan.



**Bigarrena.**- Alkatetza ahalduntzea erabaki honetan ezartzen den guztia garatzeko eta kudeatzeko.

**Hirugarrena.**- Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, Diputatuen Kontseiluaren erabaki horren bigarren puntuan aurreikusitako ondoretarako.

**3.- Udalbatzaren erabaki-proposamena Zuhatzako Administrazio Batzarrak jarritako 41/2022 Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan agertzeko. Administrazioarekiko Auzi Errekurtso hori jarri zen Zuhatzako bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren sektorearen ituntze-batzarraren estatutu eta oinarriak behin betiko onesteari buruzko 2021eko azaroaren 18ko bilkuraren erabakiaren aurka.**

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hitza hartu du eta adierazi du Zuhatzako Administrazio Batzarrak azaroko bilkuraren erabakiaren aurka auzi-errekurtsoa jarri duela; zeinaren bidez ez dituzten behin betiko onesten ituntze-batzarraren estutuak eta oinarriak.

Idazkari andreak hitza hartu du esateko epaimahaiaren jakinarazpena batzordeen egun berean heldu zela eta horregatik ezin izan zela bertan jorratu.

Bilkura honen gai-zerrendan sartu da 10 eguneko epea dagoelako agertzeko eta ezin delako atzeratu hurrengo hilabeteko bilkurara.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai zerrendan aurretiaz Informazio Batzordeak informatu ez dituen gaiak sar ditzakeela. Kasu horretan, ezin izango da gai horien inguruko inolako erabakirik hartu osoko bilkurak ez badu eguneko gai zerrendan sartzea berresten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta ez dagoenez inolako iruzkinik bozkatu egin da eta bertaratutako udalkide guztiek aho batez onetsi dute bilkura honen eguneko gai zerrendan sartzea.

Puntu horri buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman da.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hitza hartu du esateko protesta horretan abstenitu egingo dela, gai horrekin lotutako aurreko auzi-errekurtsoan gertatutakoagatik; orduan ez zitzaigun azaldu Udala agertu baino ez zela egingo, baina ez zuela parterik hartuko, Aldundiaren aurkako errekurtsoan eta azkenean Aldundiak ez zuen aurrera jarraitu, baina bai Udalak. Aurreko hartan engainatuta sentitu ziren eta beraz, oraingoan abstenitu egingo dira.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hitza hartu du esateko errekurtso horretan ez zela zalantzan jartzen ari Udalak hartutako erabakia, eta gardentasunaren mesedetan eta gatazka konpontzeko asmoz gaiari buruzko epeia ematea eta gaia argitzea lehenetsi zela.



Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hitza hartu du gaineratzeko ez zitzaiela horrela azaldu; Udala badaezpada agertuko zela, baina ez zuela jardungo, eta gertatu zena ez zen hori izan.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak berriro hartu du hitza eta azaldu du Udalak nahi zuena zela epaile batek esatea ea espedientearekin jarraitu zitekeen, zuzena zelako ala ez. Eta Udalak prozesuarekin aurrera jarraitzeko baino ez zuen esan, men egiteko erabaki judizialera iritsi ahal izateko. Prozesu horretan, eta honetan, egin den bakarra da Udaleko zerbitzu juridikoei jaramon egitea izan da, zentzu horretan aholkatu baitzuten Udala.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak hitza hartu du esateko bere taldea abstenituko dela, estatutuak onesteko gaian zalantza juridikoak zeudelako eta aurrera jarraitzeko epaiketaren emaitzari itzaroteko eskatu zelako. Txosten juridiko batek ituntze-batzarrarekin aurrera ez jarraitzea proposatzen zuen.

Ez dagoenez horren inguruko iruzkinik, gaia bozkatu egin da. Honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (EAJ-PNV)

ABSTENTZIOAK: 4 (3 EH Bildu + 1 AIARA BATUZ)

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiak Udalarari jakinarazi dio Zuhatzako Kontzejuko Administrazio Batzarrak 41/2022 auzi-errekurtsoa jarri duela 2021eko azaroaren 18ko bilkuraren erabakiaren aurka, horren bidez Zuhatzako bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren sektorearen ituntze-batzarraren estatutuak eta oinarriak behin betiko onesten dira, eta jabeek eskritura publiko bidez ituntze-batzarra eratzeko eskatzen zaie.

Epaitegiak administrazio-espedientea igortzeko eskatu du eta jarduketa berberarekin, edo horrekin lotura duen beste edozeinekin, lotutako beste errekurtsoren baten berririk baden jakinarazteko eskatu du, eta interesdun gisa agertzen direnei espedientearen ebazpena jakinarazteko.

Ez dago beste errekurtsorik jarrita aurkaratutako administrazio-jarduketaren aurka. Hala ere, honekin lotutako beste errekurtso bat dago, Zuhatzako Kontzejuko jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Zuhatzako bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren sektorearen plan partzialaren aurka; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarako Auzi Errekurtsoen Salaren Bigarren Atalaren aurrean substantziatzen da, 1194/2020 prozedura arruntaren bidez; bertan Arabako Foru Aldundia salatzen da, Plan Partziala behin betiko onetsi baitzuen eta interesdun gisa Udala eta esparruan sartutako lursailen jabeak agertu dira.

Prozedura horretan interesdunak dira Zuhatzako bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren sektoreko lursailen jabeak, eta horrenbestez, horiei guztiei administrazio-espedientea igortzea erabakitzen duen ebazpen hau jakinaraziko zaie, erabakia hartu eta bost eguneko epean, eta bederatzi eguneko epea emango zaie errekurtso honetan demandatu gisa pertsonatu ahal izan daitezen interesdun gisa ebatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen 49.1 artikulua araberak.



Jakinarazpen horiek egiten direnean bidaliko dira, Epaitegira igortzen den administrazio-espeditari egindako deien justifikazioarekin batera.

Administrazio-espeditarean erreklamazioarekin ulertzen da administrazioa deitu dela salatu gisa agertu dadin.

Udalak bere ondasun eta eskubideak defendatzeko beharrezko jarduketa legalak egin behar ditu.

**AINTZAT HARTU DA.-** Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/2998 Legea.

Udalbatzak aho batez **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiaren aurrean substantziatzen den 41/2022 auzi-errekurtsoan salatu gisa agertzea 2021eko azaroaren 18ko bilkuraren erabakiaren aurka; horren bidez Zuhatzako bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren sektorearen ituntze-batzarraren estatutuak eta oinarriak behin betiko onesten dira, eta jabeei eskritura publiko bidez ituntze-batzarra eratzeko eskatzen zaie.

**Bigarrena.-** Dagokion administrazio-espeditaria igortzea, behar bezala zenbakituta eta aurkibidearekin, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiari, interesdunei egindako jakinarazpenaren kopia erantsita.

Epaitegiari jakinaraztea ez dagoela beste errekurtsorik jarrita aurkaratutako administrazio-jarduketa berberaren aurrean. Hala ere, honekin lotutako beste errekurtsu bat dago, Zuhatzako Kontzejuak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsua Zuhatzako bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren sektorearen plan partzialaren aurka; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarako Auzi Errekurtsoen Salaren Bigarren Atalaren aurrean substantziatzen da, 1194/2020 prozedura arruntaren bidez; bertan Arabako Foru Aldundia salatzen da, Plan Partziala behin betiko onetsi baitzuen eta interesdun gisa Udala eta esparruko lursailen jabeak agertu dira.

**Hirugarrena.-** Prozedura horretan interesduntzat hartzea Zuhatzako bizitegirako lurzoru urbanizagarriaren sektorean sartutako lursailen jabeak, horrenbestez, horiei guztiei administrazio-espeditaria igortzea erabakitzen duen ebazpena jakinaraziko zaie, erabakia hartu eta bost eguneko epean, eta bederatzi eguneko epea emango zaie errekurtsu horretan demandatu gisa pertsonatu ahal izan daitezen interesdun gisa epatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen 49.1 artikulua araberak. Jakinarazpen horiek egiten direnean bidaliko dira, Epaitegira igortzen den administrazio-espeditari egindako deien justifikazioarekin batera.



**Laugarrena.**- Auzi-errekurtsoan Udalaren ordezkapena eta defentsa agintzea honako prokuradore eta abokatu hauei:

**Prokuradoreak.**- Gasteizkoak: Regina de Aniel Quiroga Ortiz de Zúñiga and. eta Maria Boulandier Frade and.; Bilbokoak: Begoña Fernández de Gamboa Irarragorri and. eta Arantzane Gorriñobeaskoa Etxebarria and. eta Madrilgoak: Enrique de Antonio Viscor jn. eta Beatriz Ayllón Caro and.

**Abokatuak.**- Ekain Abokatuak aholkularitza-juridikokoak: Marisol López de Alda Ruiz de Arbulo and., Nieves Martín Raurich and. eta Jon Anda Lazpita jn.”.

#### **4.- EH Bildu udal-taldeak Araba eta Bizkaiko aldirietako trenari buruz aurkeztutako mozioa.**

Udalbatzari gai horren inguruko 2022ko otsailaren 8ko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumen informazio-batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak komentatu du informazio-batzordean aipatutako aldaketak egin direla.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak hitza hartu du Araba eta Bizkaiko aldirien trenari buruzko mozioaren alderdirik garrantzitsuenak azaltzeko.

Horri dagokionez ez da esku-hartze gehiago egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitatik 10ek).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Araba eta Bizkaiko aldirien trenari buruz EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa.

IKUSI DA.- 2022ko otsailaren 8ko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumen informazio-batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak aho batez ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Araba eta Bizkaiko aldirien trenari buruz EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa. Honako hau dio hitzez hitz:

#### **MOZIOAREN JUSTIFIKAZIOA**

Mozio honen helburua, bigarrenez, Arabako eta Bizkaiko aldiriko trena kalitatezko zerbitzu publiko gisa aldarrikatzea eta balioestea da, Arabako zein Bizkaiko herritarren premiekin bat etorritz.





Zehazki aipatzen ari garen aldirietako sarea, gaur egun estatuko administrazioaren mende dagoena, Bilbo Urduñarekin lotzen duen C3 linea da.

Trenbideko garraio publikoa beharrezkoa da gure lurraldea lotzeko eta artikulatzeko, eta Arabak, Bizkaiak bezala, aldiriko trena behar du, bai eskualdeen artean, bai hiriburuekin lotzen jarraitzeko.

2020. urtearen amaieratik, C3 linea egunero ari da zerbitzuaren kalitatea galtzen, zirkulazioak etengabe kentzen, eta horiek Renferen Twitterreko kontutik abisatuta daude, gutxieneko denbora-tartearekin, erabiltzaileei eragozpen eta arazo ugari sortuz.

### MOZIOA

Horregatik guztiatik, Aiarako Osoko Bilkurari ERABAKI hau hartzea proposatzen zaio:

Lehenengoa. –RENFERi pandemiaren aurretik zeuden tren bidezko zirkulazioen ordutegiak eta kopurua berrezartzeko eskatzea.

Bigarrena. - RENFERi Arabako aldirietako herrigunean C3 linean tren-zerbitzu lehiakorra eta Arabako herritarren premiekin bat datorrena bermatzeko eskatzea.

Hirugarrena. – RENFERi plantillak gehitzeko eskatzea, aurreko puntuetan eskatutakoarekin bat datorren garraio-zerbitzua eskaini ahal izateko.

Laugarrena. – Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari (GMHAM) lehenbailehen eskatzea Renferen aldirietako zerbitzuaren eskumena Eusko Jaurlaritzari transferitzeko.

### **5.- Alkatetzaren Dekretuen kontu ematea.**

Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaizkio 2022/15 eta 2022/88 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, aipatutako bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/15.- F/2021/11 erregistratutako fakturen kontabilitate zerrenda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/16.- Fundación Benéfica Alday.- Arespalditzan hirugarren adinekoen egoitza handiagotzeko obrak hasteko baimenerako Udalaren obra-lizentzia ematea eta dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/17.- Fundación Benéfica Alday.- Arespalditzan hirugarren adinekoen egoitza handiagotzeko obretarako hondakinen kudeaketaren fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/18.- S.M.M.- Lantenoko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/19.- E.C.R.- Salmantoneko eraikinean Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.





ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/20.- M.E.S.M.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/21.- A.F.C.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/22.- MA.C.A.- Erretes Lantenoko etxebizitzan behin-behineko lehen erabilerako lizentzia ematea eta eraikuntzako obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/23.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- La Blanca eta Iza Baserriaren bidea zolatzeko obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/24.- L.A.- Udal artxiboko informazio publiko espedientera sarbidea eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/25.- Total Energies Clientes SAU.- 4/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/26.- Baser Comercializadora de Ref. SA.- 4/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/27.- EDP Clientes SAU.- 4/2022 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/28.- Orange Espagne.- 4/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/29.- Acciona Green Energy Developments SLU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/30.- Total Energies Electricidad y Gas España, SAU.- 4/2021 tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/31.- R.P.M.- Luiaondon hormigoizko zolata eraikitzeke Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/32.- A.B.G.- Izorian pista konpontzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/33.- Arespalditzako Iturran 7ko etxejabeen elkarte.- Arespalditzan eraikinaren lehen erabilerako udal lizentzia ematea eta birgaitze partzialeko obra hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/34.- Fundación San José y San Buenaventura.- Arespalditzan Cerrajería jauregiaren ondoko eraikinaren eraiste-obra hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/35.- Taldeport SL.- "Udal-igerilekuak mantentzea eta zaintzea" amaitutako zerbitzuagatik banku-abala itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/36.- M.O.Z.- "Aiarako Jolas Txokoak udalekuak" amaitutako zerbitzuagatik behin betiko fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/37.- MA.I.I.- Izoriako etxebizitzan lehen erabilerako lizentzia ematea eta birgaitze-obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/38.- S.R.A.- Luiaondoko etxebizitzan plataforma altxagari bidez hormak margotzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/39.- E.M.DH.- Arespalditzako etxebizitzan sukaldea



eta egongela berrizatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/40.- 2021 EEPari dagokion administrazio orokorreko teknikari plaza baten hautaketa-prozesuaren deialdia onestea eta prozesu osoa arautu behar duten oinarri espezifikoak onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/41.- MC.U.M.- Olabazarreko etxebizitzan metalezko ate baskulagarria jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/42.- NM.G.P.- Lantenon etxolaren estalkia birgaitzeko obra-bukaera onestea eta obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/43.-MC.U.M.- Olabazarren euste-horma zaharberritzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/44.- A.E.G.- Zuhatzan etxebizitzaren birgaitze-obra hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/45.- R.V.M.- Aparkatzeko txartela zahartzeagatik ordezkatzeta.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/46.- M.M.P.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/47.- C.A.S.T.- Biztanleen Udal Erroldan okerreko inskripzioagatik baja-espeditentia hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/48.-A.M.M.- Izorian, 5. pabiloiko 394. partzela ixteko legezketasuna leheneratzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/49.-S.O.M.- 566/2021 Dekretua egokitzea AFaren Errepedeen Zerbitzuari buruzko 2021eko maiatzaren 10eko 1960 Ebazpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/50.- Goiener S.Koop.- Tokiko jabari publikoa okupatzeagatik aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/51.- Regsiti Comercializadora SLU.- Tokiko jabari publikoa okupatzeagatik aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/52.- Repsol Com. de Electricidad y Gas SLU.- Gas-hornikuntzagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/53.- Repsol Com. de Electricidad y Gas SLU.- Energia-hornikuntzagatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/54.- V.M.G.- Salmantongo etxebizitzan estalkiko erretena eta teila ordezkatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/55.- Agiñagako herrira sartzeko kalea zolatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/56.- Soxoko Administrazio Batzarra.- Soxoko Ubierte eta Urruela auzoetan harri-lubeta eraikitze obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/57.- 2022ko urtarrileko Udaleko alderdi politikoentzako ekarpen ekonomikoa ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/58.- O.M.P.- Luiaondoko etxebizitzan komuna birgaitzeko obra-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/59.- Alkatearen eta funtzionarioen nominen ordainketa likidoa onestea, 2022ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/60.- 2021/22 Eskualdeko Enplegu Planean kontratatutako langileen 2022ko urtarrileko nominak ordaintzea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/61.- Gasteizko Apezpikutegia.- Luiaondon apaizetxea barrutik birgaitzeko obraren lehen erabilerako lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/62.- J.G.G.- Beotegin usategiaren lehen erabilerako lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea eta handiagotze-obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/63.- MB.S.Y.- Lantenon etxebizitza birgaitzeko obra-lizentzia eman baino lehen AFaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txostena eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/64.- Ibaizabal Gaztetxea Gazte Elkartea.- Emandako dirulaguntzaren justifikazioaren dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/65.-Axpo Iberia SL.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/66.- Endesa Energía SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/67.- Energía XXI SLU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/68.- 2021eko ordainsari teknikoen gastuengatik Administrazio Batzarrei dirulaguntza ordaintzeko agintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/69.- Proviser SLU.- Udal-igerilekuetan estalitako gunea jartzeko obraren kontratuaren adjudikazioagatik behin betiko fidantza gisa aurkeztutako abala itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/70.- 2021ean obra-egikaritze gastuengatik Administrazio Batzarrei dirulaguntza ordaintzeko agintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/71.- Udalkideei ekarpen ekonomikoa onestea, 2022ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/72.- Zabaia Landa Garapeneko Elkartean udal-ordezkeri berriak izendatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/73.- GSDN.- 2021eko abenduko kuotaren ekarpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/74.- JM.G.G.- Terraza estaltzeko obraren lehen erabilerako lizentzia ematea eta hondakinen kudeaketarako fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/75.- Agiñagako Administrazio Batzarra.- Agiñagako Larrabe auzoan argi-puntua jartzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/76.- J.M.U.- Arespalditzako etxebizitzan leihoak aldatzeko eta gas-depositua kentzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/77.- E.C.R.- Salmantongo etxebizitzako goiko solairuko trastelekuan konponketak egiteko Udalaren obra-lizentzia ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/78.- Gentza Alamillo Udaetari obra-lizentzia emateko lehenengo alkateordearengan eskumenak eskuordetzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/79.- F/2021/15 kontabilitate-zerrendan erregistratutako fakturen onepena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/80.- GSTIONA KUDEAKETA SLren faktura ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/82.- G.A.U.- Luiaondoko etxebizitzan leihoak eta pladurrezko teilatuak ordezkatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/83.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Lantenon hondakin-uren isurketak bateratzeko eta arazteko sistema berriaren obrarako Udalaren obra-lizentzia emateko hondakinen kudeaketaren fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/84.- Cobelcobel SL.- Menagarain eraikuntzetan jarduteko obra-lizentzia emateko dokumentazio eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/85.- I.V.O.- Arespalditzako etxebizitzaren aurrean euria jasotzeko hodia ordezkatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/86.- JA.V.S.- Menoioko etxebizitzan fatxada birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/87.- Opellorako Administrazio Batzarra.- Uraren banaketa-sarea berritzatzeko obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/88.- JM.R.D.- Salmantongo etxebizitzan estalkia birgaitzeko obraren hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

Ez dagoenez horren inguruko beste iruzkinik, udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

## **6.- Eskaerak eta galderak.**

• Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hitza hartu du fidantzen itzulketetan dekretu asko ikusi dituztela komentatzeko, eta galdetzen du ea hori arkitekto laguntzaileak egindako lanari dagokion.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak baietz erantzun dio, lana antolatu dutela eta espediente horiek bizkortzen ari dela.

• Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak hitza hartu du eskatzeko Aiara mapa bat egin dadila, estaldura eta Internet-zerbitzuaren gaia nola geratuko den azaltzen duena. Zenbait gune zerbitzu digital gabe eta egoera txarrean geratuko dira, alternatibak ez direlako eraginkorrak; hortaz, eskatzen da Aldundiari azterketa hori eskatzeko, etxe batzuk isolatuta geldituko direlako, zuntz optikorik gabe eta oso estaldura baxuarekin, edo estaldurarik gabe.



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio zuntz optikoaren zabaltzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzarekin etengabeko harremanetan daudela, hura baita dagokion Ministerioarekin harremanetan jartzen dena eta azken horiek direlako gune grisak eta zuriak zehazten dituztenak. Gaineratu du harremanetan daudela informazioa helaraz diezaieten eta gainerako taldeei horri buruz bidaltzen den informazioa helaraziko diete. Alkate jaunak komentatu du bigarren fase horretan sakabanatutako baserrietara eta gune zuritzat jotakoetara heltzeko lanean ari direla.

Halaber, gune grisek dagoeneko zabaltze horretarako badaukate adjudikatutako enpresa bat, baina Planari itxaron behar diote. Gainerako taldeei gune zuri gisa sailkatutako gune guztiak helaraziko zaizkie; 2022 honetan zuntza iritsiko zaie.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita sei minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeta biko otsailaren hamazazpian.

O.E.  
ALKATE-UDALBURUA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.